**Espedientea: 2HI-025/16-P08**
**MAÑARIA**
**Mañariko Markomin Goikoa Harrobiko Plan Berezia..**

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN BIZKAIKO HIRIGINTZA PLANGINTZA ATALEKO IDAZKARIAK

**ZIURTATZEN DUT** Bizkaiko Hirigintza Plangintzaren Atalak uztailaren 13an izandako 6/2016 bilkuran, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituztela, aho batez, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutakoek:

**“I.** Aldeko irizpena ematea Mañariko Markomin Goikoa Harrobiko Plan Bereziari, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea betetzeari eta honako hauetara egokitzeari dagokionez: Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legearen lurralde-antolamenduko tresnak, eta Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanen gaineko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legean adierazitako alderdiak.

Hala ere, jarduera osagarrietarako lurzoruaren % 50ren eraikuntza-parametroa kendu eta benetako beharretara egokitutako eraikigarritasuna arrazoitu eta kokatu egin beharko litzateke.

**II.** Batzorde honi dagokionez Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen gehigarrizko 3. xedapenean ezarritakoarekin bat etorriz, txosten honetan sartutako baldintzak bete ondoren, espedientea behin betiko onartu ahal izango da, Batzorde honen txostena berriro eskatu gabe.

**III.** Kontuan hartu beharko da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen Bigarren Xedapen Iragankorrak ezarritakoari jarraikiz, hiri-antolamenduko plan orokor eta plangintzaren arau subsidiario guztiak egokitu egin beharko direla aipatutako lege horren zehaztapenetara.

**Expediente: 2HI-025/16-P08**
**MAÑARIA**
**Plan Especial de la Cantera Markomin Goikoa de Mañaria**

TOMÁS ORALLO QUIROGA, SECRETARIO DE LA SECCIÓN DE PLANEAMIENTO URBANÍSTICO DE BIZKAIA DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO.

**CERTIFICO** que en la Sesión 6/2016, de la Sección de Planeamiento Urbanístico de Bizkaia celebrada el día 13 de julio, se adoptó, entre otros, por unanimidad de los asistentes que conformaban la mayoría absoluta de sus miembros, los siguientes acuerdos:

**“I.** Informar favorablemente al expediente de Plan Especial de la Cantera Markomin Goikoa de Mañaria, en lo que respecta al cumplimiento de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, a su adecuación a los instrumentos de Ordenación Territorial de la Ley 4/1990 de Ordenación del Territorio del País Vasco y a los aspectos señalados en la Ley 5/1993 de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los órganos Forales de sus Territorios Históricos.

No obstante se debiera eliminar el parámetro edificatorio del 50% del suelo destinado a actividades complementarias y justificar la edificabilidad realmente necesaria y su ubicación concreta.

**II.** A los efectos de lo dispuesto en el punto 3 de la Disposición Adicional Primera de la Ley 2/2006 d Suelo y Urbanismo relativa a esta Comisión, una vez introducidas las condiciones contenidas en el presente informe el expediente podrá ser aprobado definitivamente sin necesidad de ser sometido nuevamente a informe de esta comisión.

**III.** Se deberá tener en cuenta que, en cumplimiento de lo establecido en la Disposición Transitoria Segunda de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, todos los Planes Generales de Ordenación Urbana y Normas Subsidiarias del Planeamiento deberán ser adaptados a las

**IV**. Espediente hau behin betiko onartzeko, eskumena duen organoari ondokoek egindako txostenak bidaltzea: URA-Uraren Euskal Agentzia (I. eranskina) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza (II. Eranskina). Ziurtagiri horiek erantsita doaz."

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen, Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 13an.

determinaciones de la Ley mencionada.

**IV.** Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente los informes emitidos por URA. Agencia Vasca del Agua (Anexo I) y por la Dirección General de Cohesión del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa (Anexo II); que se acompañan a la presente certificación."

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 13 de julio de 2016.

IDAZKARIA/EL SECRETARIO

Izpta./Fdo.: Tomás Orallo Quiroga